



**2017ko HIRUGARREN HIRUHILEKOKO
EMAITZAK**



2017ko urriak 25

- Kontratazioa
- Eskarien zorroa
- Eraitza-kontu bateratua
- Aurreikuspenak

Kontratazioa



Gehienbat European eta Estatu Batuetan oinarritutako kontratazioa

(Milioi eurotan)

	2014	2015	2016	2017 ¹		
	1.HH-4.HH	1.HH-4.HH	1.HH-4.HH	1.HH	1.HH-2.HH	1.HH-3.HH
Kontratazioa	1.895	902	2.677	232	454	547 ²

Honako hauek izan dira 2017ko hirugarren hiruhilekoan sinatutako eta eskarien zorroan sartutako kontratu nagusiak :



Cosenza (Italia)



Kansas (USA)



Seattle (USA)

Kontratazio hauek ekitaldiko lehen seihilekoan jasota zeudenei gehitu behar dizkiegu eta era berean nabarmendu behar da, CAFen aurreko bezeroen konfiantza berritu dela, Utrechten eta Kansasen, esaterako.

Hirugarren hiruhilekoaren itxieraren ondoren, aurkeztutako kontratazio zifran barneratzen diren proiektuez gain, CAFek Stockholm-eko tranbiaren proiektuaren luzapena eta De Lijn operadorearentzako (Belgika) tranbien kontratazioa sinatu ditu. Bi kontratua hauen zenbatekoa 130 milioi eurokoa izan da gutxi gorabehera.

Kontratazio hauei mantentze lanetako proiektuen luzapen eta berriktarekin erlazionaturiko beste batzuk gehitzen zaizkie, baita MiiRaren kontratu berriak eta beste Negozioenak ere. Exekuzio proiektuetan eginiko egokitzapenak ere hartzen ditu barne (gainbalioak, minusbalioak eta moneta-bihurketa egokitzapenak, batez ere).

¹ Kontratazioa horrelakotzat lortuta: (Aldi amaierako zorroa – Aldi hasierako zorroa + Aldiko salmentak). Kontratuaren sinadura hartu dugu eskarien zorroan aitortzeko irizpide gisa

² Zifra horrek ez ditu jasotzen kontratatutako proiektu batzuek jasotzen dituzten aukera gehigarriak.

(jarraipena)

Cosenza (Italia)

Kalabriako Eskualdeak eta CAFek Urbos 100 motako tranbiak fabrikatzeko eta hornitzeko kontratu bat sinatu dute. Italiako Kosenza hirialdean emango dute zerbitzua unitate berri hauek.

Proiektuak honako hauek hartzen ditu barne:

- 5 kotxedun 4 unitateren hornikuntza



Seattle (Estatu Batuak)

Seattleko Garraio Departamentuak (SDOT) CAF aukeratu du URBOS plataformako %100 solairu baxuko tranbiak hornitzeko. Tranbia berri horiek ontzian energia biltegitratzeko sistema izango dute, CAF Power & Automation-ek hornitua, eta horri esker, katenariarik ez duten sareko zatietan ibili ahal izango dira ibilgailuak.

Proiektuak honako hauek hartzen ditu barne:

- 3 kotxedun 10 unitateren hornikuntza, %100 solairu baxukoak, ontzian energia biltegitratzeko sistemarekin
- Ordezko piezen, tresna berezien eta probetako ekipoen hornidura
- Beste 10 ibilgailu arte erosteko eta haiei dagozkien ordezkoak erosteko eskubidea



(jarraipena)

Kansas (Estatu Batuak)

Kansas Cityko Garraio Agintaritzak CAFi tranbia gehigarriak erosteko onarpena eman du, tranbia horiek lehen hornitutako eta iaiztik zerbitzuan dauden lauri gehituko zaizkielarik. River Market eta Union Station lotzen dituen tranbien sarean erabiltzaile kopurua gero eta gehiago handitzeak eragin du erabaki hori.

Proiektuak honako hauek hartzen ditu barne:

- 3 kotxedun 2 unitateren hornikuntza



Stockholm (Suedia)

2017ko urriaren 24ean CAFek SL AB-rekin (Storstockholms Lokaltrafik) Stockholm hiriko garraioen sarearen enpresa arduradunarekin, hiri horretarako tranbien hornikuntza proiektua handitzeko kontratua sinatu du. Hala, hiriburu eskandinaviarren dagoeneko martxan diren eta CAFek fabrikatu dituen 22 unitateei batuko zaizkie.

Proiektua handitzeko lan horrek honako hauek hartzen ditu barne:

- 12 unitateren hornikuntza

Unitate hauek lehenengo seihilekoan sinatutako 3 kotxedun 8 unitateei gehitzen zaizkie



(jarraipena)

De Lijn (Belgika)

2017ko urriaren 25ean CAFek eta Belgikako Flandriako Garraio Elkartek, De Lijn-ek, tranbia berriren hornikuntza biltzen duen kontratua sinatu dute.

Proiektuak honako hauek hartzen ditu barne:

- 48 unitateren hornikuntza
- Beste 98 ibilgailu arte erosteko aukera gutxi gorabehera




Eskarien zorroa



Zorro zabal honek epe luzerako jarduera bermatzen du

Zorroa, guztira (M€)

● Zorroa / Salmentak Ratioa ⁽¹⁾



2017ko irailaren 30ean, **eskarien zorroa** 5.723 milioi euro tara iritsi da, hau da, 2016eko salmenten 4,3x-koa.

Zorro horrek ez du jasotzen 2017ko irailaren 30aren ondoren egindako **kontratazio irmoa**:

- Stockholm-erako tranbia unitateak
- De Lijn tranbia unitateak

Gainera, CAFek oraindik 300 milioi euro inguruko guztizko balioa duten eta **sinatzeke dauden esleitutako proiektuak** ditu, esleitu berri den West Midlands (Erresuma Batua) frankiziarako 200 milioi euro inguruko proiektua barne dagoelarik.

¹ 2017ko hiruhileko bakoitzeko Zorroa / Salmentak ratioa, 2016eko urteko salmenta-zifraren arabera kalkulatuta.

Emaizta-kontu bateratua



(Mila eurotan)

	3.HH 2017	3.HH 2016	Ald. %
Negozio-zifraren zenbateko garbia	1.051.837	962.552	9%
EBITDA	129.547	104.158	24%
Ibilgetuaren amortizazioa eta zuzkidurak	(25.818)	(22.632)	14%
EBIT	103.729	81.526	27%
Finantza-emaizta	(58.909)	(39.093)	51%
Zergen aurreko emaitza	44.820	42.433	6%
Irabazien gaineko zerga	(16.473)	(15.433)	7%
Zergen ondorengo emaitza garbia	28.347	27.000	5%
Kanpoko bazkideen emaitza	129	486	(73%)
Sozietate nagusiari egotzitako emaitza	28.218	26.513	6%

2017ko irailaren 30an, negozio-zifraren zenbateko garbia 1.051.837 mila eurokoa da; hau da, 2016eko aldi berekoa baino 89.285 mila euro handiagoa (% 9). Igoera hau, 2016 urteko aldi berarekin alderatuz, industria-jarduerak izan duen hazkundearen ondorioa da.

Esportazioari dagokion negozio-zifraren ehunekoak % 86,4koa izan da.

Medellin eta Santiago de Chileko metro-unitateak, CPTM eta Mexiko D.F. eta Toluca artean dagoen linea berrirako aldiriko trenak, Transpennine, Northern eta Caledonian Sleepers Frakiziek batera dira, 2017ko irailaren 30an amaitu den hiruhilekoan abian dauden fabrikazio-proiektu nagusiak.

Emaizta-kontu bateratua



(Mila eurotan)

	3.HH 2017	3.HH 2016	Ald. %
Negozio-zifraren zenbateko garbia	1.051.837	962.552	9%
EBITDA	129.547	104.158	24%
Ibilgetuaren amortizazioa eta zuzkidurak	(25.818)	(22.632)	14%
EBIT	103.729	81.526	27%
Finantza-emaizta	(58.909)	(39.093)	51%
Zergen aurreko emaitza	44.820	42.433	6%
Irabazien gaineko zerga	(16.473)	(15.433)	7%
Zergen ondorengo emaitza garbia	28.347	27.000	5%
Kanpoko bazkideen emaitza	129	486	(73%)
Sozietate nagusiarri egotzitako emaitza	28.218	26.513	6%

2017ko irailaren 30an, EBITDA marjina 129.547 mila eurokoa izan da; 2016eko aldi berean, ordea, 104.158 mila eurokoa izan zen, aurtengo zifra % 24 handiagoa izanik, eginbidean dauden proiektuen “mix”-aren eta urtetik urterako industria-jarduera gero eta handiagoa denaren ondorioz.

2017ko irailaren 30an, Finantza-emaizta 58.909 mila euroko galerakoa izan da; hau da, 2016eko aldi berekoa baino % 51 handiagoa, batez ere brasildar errealak aldaketak izateko esposizio handiagoa izan delako, aurreko ekitaldiko aldiarekin alderatuta.

Zergen aurreko emaitza 44.820 mila eurokoa izan da 2017ko irailaren 30an; hau da, 2016eko aldi bereko irabazia baino % 6 handiagoa.

Zergen ondorengo emaitza garbia 28.347 mila eurokoa izan da 2017ko irailaren 30an; hau da, 2016eko aldi bereko irabazia baino % 5 handiagoa.

Sozietate nagusiarri egotzitako emaitza, 2017ko irailaren 30an, 28.218 mila eurokoa izan da; hau da, 2016eko aldi bereko irabazia baino % 6 handiagoa.

Aurreikuspenak



Konpainiak aurreikuspenak mantentzen ditu¹

- Urteko hazkunde-tasa konposatuak (*CAGR*) bi digitu izan ditu 2017-2018an salmentei dagokienez, 2016ko kontratazio historikoan oinarrituta.
- Hurrengo ekitaldietan aurreikusten den irabaziaren joera gorakorra honako hauetan oinarrituta dago:
 - a) Jardueraren igoera; bereziki, Europako fabrikazio-lantegietan.
 - b) Kontratazio-marjina historikoekin lerrokatuta egongo da.
 - c) Eskarien zorroaren gauzatze-arrisku txikiagoa.
 - d) Dagoeneko lehen aurrezki-seinaleak ematen hasi diren lanen bikaintasun eta eragingarritasuneko programak:
 - Hobekuntza fabrikazioaren eta industrializazioaren kudeaketan.
 - Hornitzaileen lanaren optimizazioa kalitateari eta entregei dagokienez.
 - Erosketen globalizazioa eta kudeaketaren hobekuntza.
 - Hornikuntzen kudeaketa eragingarria.
- Egungo eskari-zorro historikoari eusteko helburua, 5.500-6.000 milioi euroko eskaintza irekien bolumen egonkorra oinarri hartuta.



¹ Aurreikuspen horiek 2017ko otsailaren 27an argitaratutako "2016ko Emaitzen Aurkezpena" dokumentuan jasota daude

Dokumentu honek informazio-helburua du soilik.

Dokumentu honetan dagoen informazioa ez dute hirugarren independenteek egiaztatu; ildo horretatik, ez dago informazioaren edo bertan adierazitako iritzien edo aitopenen inpartzialtasunari, zehaztasunari, osotasunari edo zuzenketari buruzko berme zehatzik.

Dokumentu honek etorkizuneko aurreikuspenei eta estimazioei buruzko agerpenak izan ditzake eta horiek ezingo dira errendimenduko berme edo etorkizuneko emaitza gisa hartu arriskuak eta gorabeherak izan baititzakete. Horietako asko CAFen kontroletik kanpo daude eta gerta daiteke emaitzak errealak aipatutako aurreikuspenetan eta estimazioetan adierazitakoetatik materialki bat ez etortzea.

Beraz, inola ere ezingo da CAFeko akzioak saldu, erosi edo akzioetan parte hartzeko, edo beste edozein balio edo inbertsionarako aholku edo gomendio gisa hartu. Gainera, helburuen artean ez du produktu edo finantza-zerbitzurik eskaintzea.

Dokumentu honetan jasotako informazioa eta iritziak dokumentua prestatu deneko datan emandakoak dira eta alde zuzenetik jakinarazi beharrik izan gabe egiaztatzearen, amaitzearen eta aldatzearen mende daude. CAFek ez du estimazioak eta aurreikuspenak jendaurrean eguneratzeko edo berrikusteko inolako betebeharririk hartzen bere gain. Eguneraketa edo berrikusketa horiek informazio berriaren, etorkizuneko gertakizunen edo beste gorabehera batzuen ondorio izan daitezke.

Dokumentu honetan jasotako informazioaren ondorioz hirugarren batek hartutako edozein erabaki hirugarren horren arrisku eta erantzukizun eksklusiboaren eta bakarraren mende geratuko da. CAFek, haren filialek edo ordezkariak ez dira edozein kalderen arduradunak izango eta ez dute dokumentu hau edo bertako edukia erabiltzetik eratorritako inolako erantzukizunik beren gain hartuko.

Dokumentu hau eta bertan jasotako informazioa erabat isilpekoak dira eta ezin izango dira CAFek alde zuzenetik idatzizko baimena eman gabe kopia, erreproduzitu, argitaratu edo banatu (osorik edo partzialki).